

# Krisi isuriak ingurumenari kalte

2009an eztabaidatu behar zen Kyotoko Protokoloaren ordezkako akordioa, baina krisi ekonomikoak astindu ditu hainbat herrialde, eta horiek hasiak dira tratuan, ezarritako helburuak nondik apalduko

## AUTOGINTZA INDUSTRIARENTZAKO laguntza ekologikoak

Europako Batzordeak krisiaren eragina arintzeko laguntzak eman dizkie automobil egileei, ibilgailu ekologikoagoak egin ditzaten.

Baina hori baino gehiago lortu nahi dute, eta sektoreari eragiteko estrategia oso bat landu dute:

araudia aldatu eta ibilgailuek zama gutxiago izatea nahi dute, munduko merkaturako sarbideak hobetzea, ikerkuntzaren bidez

berrikuntza sustatzea eta garraio-bideen segurtasuna handitzea.

Europako Batasunak jakinarazi duenez, ekoizleek 40.000 milioi euroko mailegua eskatu diote Batasunari ibilgailu ekologikoagoak egiteko, eta asmo

horrek aurrera egingo duela dirudi, Europak begi onez ikusten baitu.

Ameriketako Estatu Batuetan ere antzeko erabakia hartu dute

helburu horixe bera lortzeko: interes txiki- txikiko maileguak ematea.

KRISI EKONOMIKOAK ingurumenari ere eragiten dio. Epe motzera begiratuta, onerako izan daitekeela pentsa dezake batek baino gehiagok: jendeak gauza gehiago birziklatuko ditu, energia eta erregai gutxiago kontsumitu eta erositako gauzak hobeto zaindu. Baina erakunde ekologikak oso kezkatuta daude. Beldur dira, erakunde publikoek ez ote duten bigarren mailan utziko iraunkortasunaren aldeko lana. Ekonomia indartzeak erabateko lehentasuna hartzen badu, ingurumenak kalte handiak jasan ditzake.

WWF/Adena erakundearen Petrolioaren Behatokiak emandako datuen arabera, 2008ko lehen seihilekoan, Espainian dezente gutxitu dira CO2 isuriak, jendeak gutxiago kontsumitu dituelako gasolioa eta gasolina. Baina ez da izan Espainiako kontua soilik: mundu guztian gutxitu dira isuriak. Itxura guztien arabera, krisi ekonomikoak eragin du hori, eta petrolioak azken hilabeteetan izan duen prezioak.

Isuriak gutxitzea, ordea, aldi bateko kontua izan daiteke, aldi labur batekoa. Uda ostean, 150 dolarretara iritsi zen petrolio upela, baina kontsumoa apaldu egin denez, hiru hilabete aski izan ditu prezio erdira jaisteko. Petrolio merkatu izanak, beraz, lehengo egoerara eraman gaitzake, lehen adina kontsumitzera, alegia, eta ekonomiari ezinbestean bultzada bat eman beharrez ere lagundu dezake

hori gertatzen. Eta badago beste kontu bat, hori ere petrolioaren prezioari lotua: petrolio merke badago, premia eta interes gutxiago izango da energia berriztagarriak sustatu eta garatzeko.

Hori gerta daitekeela ikusita, Nicholas Stern britainiarrak zerga berri bat ezartzea proposatu die herrialdeei, petrolioaren erabilera gutxitu eta energia berriztagarriak sustatzeko. Klima aldaketak zer eragin ekonomiko izango duen aztertu du Stern txostena deitzen dioten dokumentuan eta hor ageri da haren proposamena. Oraindik ezin da jakin zer erantzun jasoko duen, baina ez dirudi aldeko asko aterako zaionik, krisi bete-betean oso zaila baita bide horren alde egitea.

## Helburuak apaltzeko arriskua

Kyotoko Protokoloa ere koloka jarri du krisiak -2012. urte arte egongo da indarrean-, eta haren ondotik etorriko den akordioa ere bai, antza. Hurrengo urtean hasiko dira akordio horren edukiak eztabaidatzen, Kopenhagen, nahiz eta abendu honetan ezarriko dituzten oinarri nagusiak, Polonian. Krisiak baldintzatuko du eztabaida, eta geldialdi ekonomikoaren beldurak bertan behera bota dezake orain arte egin den ahalegin guztia.

Zenbait herrialde hasiak dira zalantzan jartzen Europako Batasunak (EB) orain dela urte eta erdi hartu zituen

konpromisoei eutsi behar ote zaien, eta eskakizunak apaltzea galdegin dute. 2020. urterako, CO2 isuriak % 20 gutxitu nahi ditu EBk, energia guztiaren % 20 berriztagarriak izatea nahi du, eta % 20 hobetu nahi du energia eraginkortasuna. Italiak eta Poloniak dagoeneko esan dute ez daudela ados planarekin, eta betoa jartzeko mehatxua ere egin dute.

Italiaren ikuspegitik, erabaki horiek kalte ekonomikoak ekarriko dizkiete hango enpresei, autogintzakoei, batik bat. Poloniak eta bloke komunistan egon ziren Europako zenbait herrialdek, berriz, ikatzarekin dabilzan zentral termoelektriko asko itxi beharko dituzte isuriak gutxitzeko eta haien ordezkari batzuk eraiki, baina ezinezkoa zaie egoera honetan horri erantzutea.

Erresuma Batuak ere adierazi du bere ezina, eta ez omen du lortuko energia guztien % 15 berriztagarriak izan daitezten. Eta Alemaniak ere plazaratu ditu bere argudioak, nahiz eta herrialde ereduak izan den ingurumenaren aldeko konpromisoak hartzeko orduan: automobil ekoizle handien salmentak bat-batean apaldu dira, eta atzeraldi garaian oso kaltegarria gerta daiteke karbono isuriak gutxitzeko eskakizun zorrotzak egitea. Egoera zaila da eta gerta liteke langabezia igotzea, enpresak arau malguagoak dituzten lekuetara mugitzen badira. Hori dela eta, Alemaniak proposatu du CO2 isuriaren araudia betetzeko diru inbertsioak egin behar dituzten industria sektore guztiei doan ematea isuri-kuota gehiago.

Baina onartuko balitz CO2 isuriak donan egiteko baimen gehiago ematea, horrek ondorio kaltegarriak ekarriko lituzke bata bestearen atzetik. Batetik, EBk eta herrialde garatuak indarra galduko lukete klima aldaketaren aurkako borrokan. Hortik sortzen den galdera begi bistakoa da aditu askorentzat: EBk ez badu konpromisorik hartzen, nola egingo dute Txinak eta Indiank adibidez? Bestetik, ahulduta utziko lituzke Garapen Garbirako Mekanismoak ere, eta horiek dira Kyotoko Protokoloak dituen tresna baliotsuenetakoak; isuriak gutxitzeko har daitezkeen neurrien artean, energia garbieraren aldeko apustua egitea da garrantzitsuenetakoak, eta garapen bidean dauden herrialdeetan

horiek ezartzeko laguntzak ematea. Herrialde garatuak hasiak dira diru laguntzak ematen, zentral eolikoak eta hidroelektrikoak eraiki ditzaten. Era horretan uztartu nahi dituzte garapena eta iraunkortasuna: teknologia hobetu, eta isuriak gutxitu.

Egoera nahasi honetan nola negoziatuko dute herrialdeek klima aldaketari aurre egiteko akordioa? Une hauetan eta 2009 hasi arte, Frantziaren esku dago Europako Batasuneko presidentzia, eta Nazioarteko Harremanetarako Frantziako Institutuko behatzaileek adierazi dutenez, herrialdeek borondate ona erakutsi dute, baina Frantziak eskari guztiak onartzea erabaki du, guztien artean eztabaidatu eta negoziatzeko. Horrek arrisku nabarmena du: eskari guztiak onartatzen hartzeko eta aurrera eramateko prest badaude, gerta daiteke akordioa ia baliorik gabe geratzea klima aldaketaren aurka egiteko. Beste arrisku bat ere bada, eta halaxe ohartarazi dute zenbait adituk. Alemaniak CO2 isuriak egiteko baimen asko eskatzen baditu, beste herrialdeek ere berdinduko dute. Poloniak bat egin isuriak gutxitzeko politikarekin, eta bloke komunista izan ziren herrialdeek ere bai; horiek ez dute eskatzen isuriak egin ahal izateko baimenik, ezpada laguntza ekonomikoak isuri horiek gutxitu ahal izateko.

Nazio Batuen Erakundeak klima aldaketaren inguruan oraintsu atera duen txosten batek esaten du diru gehiago behar dela arazo horri aurre egiteko, orain jartzen den kopurua ez delako aski: urtean 200.000 milioi dolar gehiago behar dira. Eta beste gorabehera batzuetan zein eskuzabal jokatu duten ikusita, hutsaren hurrena da hori herrialdeentzat. Finantza erakundeak zulotik ateratzeko, adibidez, 360.000 milioi euro erabili ditu Frantziak, 62.000 milioi euro Erresuma Batuak, eta 50.000 milioi euro Espainiak. Ez da erronka makala, baina aukera hortxe dagoela azpimarratu dute Europako Batasunetik: ezarritako helburuei eutsi behar zaie, eta merkatu berriak baliatu, automobil ekologikoak eta teknologia garbiak, besteak beste. //

